



## **JARDUKETA, INBERTSIO ETA FINANTZAKETA PROGRAMA**

### **EKITALDIKO KUDEAKETA MEMORIA**

#### **SARRERA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2002ko uztailaren 30ean, “BIDEGI GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA-AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS, S.A.” —aurrerantzean BIDEGI— izeneko Merkataritza Sozietate Anonimo Unipertsonal bat sortu zuen 360.000,00 euroko kapital sozialarekin. Oso-osorik Gipuzkoako Foru Aldundiak jarritako kapital hori aldatu egingo da beharrian operatibo, finantzario eta inbertsiokoen, eta hartarako ezartzen diren aurreikuspenen arabera.

2003ko ekitaldian, erabat harpidetutako 360.000,00 euroko kapital-zabalkuntza bat egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hortaz, BIDEGIk, une honetan, guztiz ordaindutako 720.000,00 euroko kapitala du.

Sozietatea Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatua dago: 1972 Liburukiko 215. folioa, SS-21020 Orria, 1. inskripzioa. Bere IFK zenbakia A20783023 da.

#### **Bidegi, Saren helburu soziala da:**

a) AP-8 autobidearen (Bilbo-Behobia) eta AP-1 autobidearen (Eibar-Gasteiz) Gipuzkoako zatiak eta beren instalazioak, Sozietateak berez edo hirugarren pertsonen bitartez mantendu, kontserbatu eta ustiatzea, eta baita horiekin zerikusirik duten edozein izaeratako zerbitzuak ere, hala nola zerbitzugunean eta garraio-zentroak.

## **PROGRAMA DE ACTUACIONES, INVERSIONES Y FINANCIACION**

### **MEMORIA DE GESTION DEL EJERCICIO**

#### **INTRODUCCION**

Con la denominación de “BIDEGI GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA-AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS, S.A.”, en lo sucesivo BIDEGI, la Diputación Foral de Gipuzkoa **constituyó el 30 de julio de 2002** una Sociedad Mercantil Anónima Unipersonal con un Capital Social de 360.000,00 euros. Este capital íntegramente desembolsado por la Diputación Foral de Gipuzkoa, variará con arreglo a las necesidades operativas, financieras y de inversión y en función de las previsiones que al efecto se establezcan.

En el ejercicio 2003 se produjo una ampliación de capital suscrita en su totalidad por la Diputación Foral de Gipuzkoa y por importe de 360.000,00 euros, por lo que en la actualidad BIDEGI cuenta con un capital de 720.000,00 euros totalmente desembolsados.

La Sociedad se halla inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa al folio 215, del Tomo 1972, Hoja SS-21020, inscripción 1ª. Su número de C.I.F. es el A20783023.

#### **Objeto social de Bidegi, S.A.:**

a) El mantenimiento, la conservación y la explotación, por sí o por terceras personas, de los tramos guipuzcoanos de la Autopista AP-8, Bilbao-Behobia, y de la Autopista AP-1, Eibar-Vitoria, y sus instalaciones, así como los servicios de cualquier naturaleza relacionados con las mismas tales como áreas de servicio y



b) Gipuzkoako Foru Aldundiak azpiegitura horietan gomendatzen dizkion zati berriak, hobekuntzak eta zabaltzeko eta luzatzeko lanak berez edo hirugarren pertsonen bitartez proiektatu, eraiki, kontserbatu, finantzatu eta ustiatzea.

2005eko irailaren 2an helburu soziala handiagotu zen, ondorengo puntua aurrekoari gehituz:

“Gipuzkoako Foru Aldundiak azpiegitura horietan gomendatzen dizkion zati berriak, hobekuntzak eta zabaltzeko eta luzatzeko lanak berez edo hirugarren pertsonen bitartez proiektatu, eraiki, kontserbatu, finantzatu, mantendu eta ustiatzea. Baita beste autobideak, bolumen handiko bideak, hala nola, aipaturiko azpiegiturekin erlazionaturiko edozein izaerako instalazio eta zerbitzuak”.

2008ko ekainaren 24ean, helburu soziala zabaldu zen ondokoa erantsiz:

“Sozietateak berezko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoko izaera du. Gipuzkoako Foru Aldundiak, kontratuak esleitu eta enkarguak egin diezaizkioke beti ere kasu bakoitzean dagokion organoak ezarritako zehaztapen eta baldintzekin.

Sozietateak ezingo du parte hartu Gipuzkoako Foru Aldundiak eginiko lehiaketa publikoetan, eskaintzailerik ez legokeen kasuan, Foru Aldundiak, Sozietateari lan hoiak egitea agintzea izango lukeelarik.

Adierazgarria da, 2013ko ekainaren 4 ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2011ko apirilaren 8ko Garapenerako 1.º hitzarmen espezifikoren aldaketa adosten duela, Hitzarmen Orokorreko VII. Klausula aplikatuz.

centros de transportes.

b) Proyectar, construir, conservar, financiar y explotar, por sí o por terceras personas, los nuevos tramos, mejoras, ampliaciones y prolongaciones de las citadas infraestructuras que le sean encomendadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El 2 de septiembre de 2005 se amplió el objeto social, agregándose a lo señalado anteriormente el siguiente punto:

Proyectar, construir, financiar, mantener, conservar y explotar, por sí o por terceras personas, otras autopistas y vías de alta capacidad, así como instalaciones y los servicios de cualquier naturaleza relacionados con las mismas, que le sean encomendadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa y, en su caso, los nuevos tramos, las mejoras, ampliaciones y prolongaciones de las citadas infraestructuras.

El 24 de junio de 2008 se amplió el objeto social, agregándose lo siguiente:

La sociedad tiene la condición de medio propio y servicio técnico de la Diputación Foral de Gipuzkoa pudiendo conferirle encomiendas y adjudicarle contratos, en los términos y con las condiciones que se determinen por los órganos correspondientes para cada caso.

La sociedad no podrá participar en licitaciones públicas convocadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa sin perjuicio de que, cuando no concurra ningún licitador, pueda encargársele la ejecución de la prestación objeto de las mismas.

Es de señalar que el 04 de Junio de 2013 el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Gipuzkoa acuerda la modificación del convenio específico de desarrollo nº1 suscrito el 8 de abril de 2011 en aplicación de la cláusula VII del Convenio General,



Aldaketa, Bidegi, SAK kudeatzen dituen bide azpiegituren ustiapen, mantentze eta artapen kostuak murrizteko eta arrazionalizatzeko helburuarekin eta sozietatearen bidegarritasun ekonomikoa aurkitu asmoz egiten da.

Burututako aldaketa “Garapenerako 1. hitzarmen espezifikoren” VI. klausula, Aldundiaren ahalmenak hitzarmenaren xede diren prestazioei buruzkoa garatzean datza. Aldaketa hori, batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiaren eta Bidegi, SAREN artean urteko inbertsioen planifikazioa batera egiteko egiten da eta bestetik Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiak Bidegiri azpiegitura horietan gomendatzen dizkion zati berriak, hobekuntzak eta zabaltzeko eta luzatzeko lanak berez edo hirugarren pertsonen bitartez proiektatu, eraiki, kontserbatu, finantzatu, mantendu eta ustiatzea. Baita bere kudeaketapean dauden beste autobideak, bolumen handiko bideak. Ikuskatzeko eta koordinatzeko.

**Bidegi, SAREN helbide soziala**, Zarautzen dago. 2007ko uztailean aldatu zen Donostiatik hona.

**Administrazio Kontseilua**, 2008ko otsailaren 26ko aldaketa ezgeroztik, Akziodunen Batzar Orokorra hautaturiko, lehendakari batez, lehendakariorde batez eta hiru eta hamaika batzarkide artean osatuta egongo da.

Aurrekontu hauek egiteko **hartu diren erizpide orokorrak** 2013ko ekainaren 4ean aldatutako mandatuaren esparruan integraturik daudenak dira. Mandatu honek Aldundiaren eta Bidegiren arteko inbertsioen planifikazio eta kontrol bateratua adierazten du, bai eta bolumen handiko bideen, mantenuaren eta artapenaren planifikazioa eta ikuskapena.

Dicha modificación se lleva a cabo en aras a conseguir la reducción y racionalización del coste de explotación, mantenimiento y conservación de las infraestructuras viarias bajo gestión de Bidegi S.A. y persiguiendo la viabilidad económica de la Sociedad.

La modificación aprobada consiste en desarrollar la Cláusula VI, “Potestades de la DFG en relación con las prestaciones objeto del convenio”. Dicha modificación está orientada a la planificación conjunta, entre la Dirección General de Infraestructuras Viarias, de la Diputación Foral de Gipuzkoa y Bidegi S.A., de las inversiones anuales y la supervisión y coordinación por parte de la Dirección General de Infraestructuras viarias de los encargos otorgados a Bidegi SA relativos a la proyección, construcción, mantenimiento, conservación y explotación, por si misma o terceras personas de las autopistas y vías de alta capacidad bajo su gestión.

**Domicilio Social de Bidegi, S.A.** se encuentra radicado en Zarautz, trasladándose de Donostia- San Sebastian a esta localidad en Julio de 2007

**Consejo de Administración**, desde la modificación del 26 de febrero de 2008 se compone de un Presidente, un Vicepresidente y entre tres y once vocales, elegidos por la Junta General de Accionistas de la Sociedad.

Los **criterios generales adoptados** para la realización del Presupuesto se integran dentro del marco de la modificación de encomienda del 04 de Junio de 2013 que apunta a la planificación y control conjunta junto a la Diputación de las inversiones a acometer así como a la planificación y supervisión del mantenimiento y conservación de las vías de alta capacidad.



Aurrekontua egiterakoan, Ogasun eta finantza departamentuak adierazten dituen eta 2016rako aurrekontuen arauen, foru sozietate merkantilentzako atalean agertzen diren irizpideak jarraitu dira.

## **SOZIETATEAREN JARDUERA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, BIDEGIren bitartez, zuzeneko kudeaketa-eredu bat ezartzen du

**A) AP-8 autobidea zabaltzeko eta AP-1 autobidea eraikitzeko bai eta Zumarraga-Bergara gaitasun-handiko bidea eraikitzeko;** Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagozkion zatietan guztiak eta horretarako egin beharreko inbertsioak finantzatzeko, autobideak berak ustiatzetik sortzen diren diru-sarreraren kontura egingo du.

BIDEGIk AP-8 Autobidean egin behar dituen inbertsioak 698.411 mila eurokoak dira, epemuga 2013a izango duelarik.

AP-1ari dagokionean, autobide honetan eginiko inbertsioen zenbatekoa 465.563 mila eurokoa izan da.

Azkenik, Bidegiren erantzunkizunpean dagoen Zumarragatik Urretxura doan Beasain-Durangoko korridoreko tartea, 2015ean inauguratu da. Deskargako ordainlekua egiteko 135.304 mila euroko inbertsioa aurreikusten da.

Inbertsio zenbateko hauei GI632 autobidea martxan jarri arteko finantza aktibazio zenbatekoak gehitu behar zaizkie, 2014ko itxieran zenbateko hauek 12.631 mila eurokoak ziren. Gainera, KPOa azpiegitura publikoen

Para la elaboración del presupuesto se han utilizado los criterios generales indicados en las Directrices Presupuestos 2016 señalados por el Departamento de Hacienda y Finanzas, en su apartado Criterios para las Sociedades Mercantiles Forales.

## **ACTIVIDAD DE LA SOCIEDAD**

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de BIDEGI, implanta un modelo de Gestión Directa para llevar a cabo:

**A) La Ampliación de la Autopista AP-8 y la Construcción de la AP-1 así como la Construcción de la vía de alta capacidad Zumarraga - Bergara,** todas ellas en sus trayectos correspondientes al Territorio Histórico de Gipuzkoa financiando las inversiones con cargo a los ingresos que genera la explotación de las propias autopistas.

El conjunto de las inversiones realizadas por BIDEGI en la Autopista AP-8 ascienden a un importe de 698.412 miles de euros.

En cuanto a la AP-1, el importe de inversiones correspondientes a esta autopista ha sido de 465.563 miles de euros

Por último respecto al tramo del corredor Beasain-Durango responsabilidad de Bidegi, el que discurre desde Zumarraga a Antzuola, ha sido inaugurado en 2015 a falta de la inversión, como comentado anteriormente, de la estación de cobro de canon en Deskarga, por un montante total previsto de 135.304 miles de euros.

Adicionalmente a estos importes de inversión hay que añadir los correspondientes a la activación financiera hasta la puesta en marcha de la GI632, que a cierre de 2014 se cifraban en 12.631 miles de euros, así como los



empresa emakidunei egokitzeko araudiak bere bigarren arauaren 3. Atalak dioena jarraituz, 2014ko itxieran, finantza-gastuen zenbatekoa 122.465 mila eurokoa zen. 2015. ekitaldian, finantza aktibazio gastuak eta finantza-gastuak, kapitalizatuko dira, hauen zenbatekoa 27.190 mila euro izatea aurreikusi da.

**B) BIDEGIk AP-8 eta AP-1eko autobideen ustiapena eta mantentze-lanak egiten ditu**, 2013an enkomienda aldatu zenetik lan hauek Foru Aldundiarekin koordinatuz egiten ditu.

Bidegiri atxikitako errepideen, ohiko mantentze-lan eta ustiapena hirugarren bati azpikontratatuak daude.

2003ko martxoan AP-8 autobidea mantendu eta ustiatzeko lanak Bidelan Gipuzkoako Autobideak, S.A.ri (Dragados, Obras y Proyectos S.A., Dragados Concesiones S.A., Asfaltos Naturales de Campezo S.A. eta Serbitzu Elkarte S.L., osatutako sozietateari) esleitu zitzaizkion, horrek irabazi zuen-eta lehiaketa publikoa eta 2005eko ekainean AP-1 autobidea mantendu eta ustiatzeko lanak Bidelan AP-1 S.A.ri (Dragados Concesiones S.A., SICE S.A., Asfaltos Naturales de Campezo S.A. eta Serbitzu Elkarte S.L., osatutako sozietari) esleitu zitzaizkion.

2007ko urtarrilaren 1ean, bi sozietateak xurgapenagatik Bidelan Gipuzkoako Autobideak, SAn bateratzen dira.

“Bidegi” eta “Bidelanek” 2010eko martxoaren 5ean kontratu berri bat sinatu zuten aipaturikoak aldatuz eta osatuz.

Egin ziren oinarritzko aldaketak, epeari buruzkoa, epea 2018ko ekainaren 5era luzatuz eta ordainketari buruzkoa izan ziren. Ordainketa, trafikoen errealaren arabera eta, beraz, aldagarria izatetik –hala ezarrita zegoen baldintza agirian-, esleipendunari zenbateko finko bat gehi irabazi edo marjina bermatu bat ordaintzera igarotzen da.

financieros correspondientes a lo regulado en la norma segunda apartado 3 de la adaptación del PGC a las empresas concesionarias de infraestructuras públicas, cuyo importe a cierre de 2014 era de 122.465 miles de euros. En el ejercicio 2015 se capitalizarán gastos financieros por ambos conceptos por un total previsible de 27.190 miles de euros.

**B) el Mantenimiento y explotación de las autopistas AP8 Y AP1** en actuación coordinada con la Diputación Foral desde la modificación de encomienda de 2013.

La explotación y mantenimiento ordinario de las carreteras adscritas a Bidegi se encuentran subcontratada a un tercero.

En marzo del 2003 se adjudicó la ejecución del mantenimiento y la explotación de la AP-8 a Bidelan Gipuzkoako Autobideak, S.A., Sociedad formada por Dragados, Obras y Proyectos S.A., Dragados Concesiones S.A., Asfaltos Naturales de Campezo S.A. y Serbitzu Elkarte S.L., ganadoras del concurso público y en junio de 2005 se adjudicó la ejecución del mantenimiento y explotación de la Autopista AP-1 a Bidelan AP-1, S.A., Sociedad formada por Dragados Concesiones S.A., S.I.C.E. S.A., Asfaltos Naturales de Campezo S.A. y Serbitzu Elkarte S.L.

El 01 de Enero de 2007 se fusionan por Absorción ambas sociedades en Bidelan Gipuzkoako Autobideak, S.A.

“BIDEGI” y “BIDELAN” firmaron con fecha 5 de marzo de 2010 un contrato en virtud del cual se modificaban y complementaban los contratos anteriormente citados.

Básicamente las modificaciones que se hicieron fueron las relativas al plazo, extendiendo éste hasta el 05 de Junio de 2018 y las relativas al precio de la contraprestación, ya que pasa de ser una contraprestación variable, establecida en el Pliego de Condiciones y dependiente del tráfico real a una contraprestación consistente en el pago de un importe fijo a la adjudicataria más un beneficio o margen garantizado.



2013ko azaroaren 26an Bidegi eta Bidelanek akordio pribatu bat sinatzen dute. Bertan, urtero gehienez ordaindu beharreko kantitateak zehazten dira. Akordio honek Bidegiri 17 Mio. €-ko aurrezpena suposatzen dio 2013-2018 epean. Gainera, prestazioaren zerbitzua bermatu behar da kontratuaren epea errespetatuz.

2015eko irailaren 18ko Bidegiko Administrazio Kontseiluak, onartzen du, BIDELAN GIPUZKOAKO AUTOBIDEAK SA.k horrela eskaturik, IRIDIUM CONCESIONES DE INFRAESTRUCTURAS, S.A.k sozietate horren partizipazioak CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS S.A. eta TRANSITIA, S.L.ri saltzea. I

Bidegiren xede da, bai zerbitzugune guztien plangintza eta kontrola, bezeroaren arretarako berriazko jardura eta baita enkomendaturiko errepideen ezohiko kontserbazioa ere. Lan hauek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Azpiegitura Departamentuarekin eta Ogasun eta Finantza Departamentuarekin koordinatuz egiten ditu.

C) **Aritzeta, Oiartzun eta Itziarreko zerbitzuguneetako mantentze-lanak eta ustiapena.** Lan hauek, hirugarren batekin harpidetu duen kontratu baten bitartez kudeatzen ditu.

2003ko abenduan, Cepsa Estaciones de Servicio, SA.ri AP-8ko zerbitzuguneen ustiapena esleitu zitzaion. Kontratua, 2003ko abenduan izenpetu zen 15 urtez.

2007ko abuztuan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, AP-1 Autobideko zerbitzuguneko eta AP-8ko Donostiako 2. Ingurabidean zerbitzugunearen proiektua idazteko, eraikitze eta zerbitzuguneen mantenimendua eta ustiapena kontratatze, baldintza plegua argitaratu zen. Esleipenduna, REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLÍFEROS, SA., kontratua, 2008ko martxoan izenpetu zen 20

El 26 de Noviembre de 2013 Bidegi y Bidelan firman un acuerdo privado por el que se modifican las cantidades máximas a abonar anualmente. Este acuerdo supone un ahorro a Bidegi de 17 Mio. € en el horizonte 2013-2018 además, se ha de garantizar el nivel de servicio de la prestación, respetando el plazo del contrato.

En Consejo de Administración de Bidegi de fecha 18 de Septiembre de 2015 se autoriza a petición de BIDELAN GIPUZKOAKO AUTOBIDEAK S.A. la venta de participaciones de esta sociedad por parte de IRIDIUM CONCESIONES DE INFRAESTRUCTURAS, S.A., a CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS S.A. y TRANSITIA, S.L.

Es objeto de Bidegi, tanto la Planificación y Control de todas las áreas, así como la actividad específica de atención al usuario y la conservación extraordinaria de las carreteras encomendadas. Tareas éstas, en coordinación con la Diputación Foral de Gipuzkoa, Departamento de Infraestructuras y Departamento de Hacienda y Finanzas.

C) el **Mantenimiento y explotación de las áreas de servicio de Aritzeta, Oiartzun e Itziar,** gestionándolas a través de la suscripción de un contrato con un tercero.

En diciembre de 2003 se adjudicó a Cepsa Estaciones de Servicio, S.A., la explotación de las áreas de servicio de la AP-8. El contrato fue firmado en Diciembre de 2003 por un plazo de 15 años.

En Agosto de 2007 se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el pliego de condiciones para el concurso de redacción, construcción, conservación y explotación del área de Servicio de la AP-1 y del segundo cinturón de San Sebastian de la AP-8 resultando adjudicatario finalmente REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLÍFEROS, S.A. El contrato fue firmado en Marzo de 2008 por un plazo de 20 años.



urterako.

Cepsak, sinatutako kontratuan ematen zitzaion negozio hoietara zuzenduriko eraikuntzetan dauden, jatetxe, kafetegi eta denden, ustiapena, hirugarren batekin azpikontratatzeko ahalmena erabiliz, AUTOGRILL ESPAÑA SAUrekin kontratu bat harpidetu zuen. 2004ko urtarrilaren 24an.

Cepsak aldeaz aurretik eskaturik, 2010eko uztailaren 28an, Bidegiko Administrazio Kontseiluak, baimendu zuen CEPSAK AUTOGRILLeri, ostalaritza eta sukaldaritza jarduerari eta zerbitzuguneei erantsita dauden denden, kontratua lagatzea.

Halaber, 2014ko ekitaldian, CEPSAK, BIDEGIri egungo kontratu eremuaren zenbait aspektu aldatzeko proposamen bat helarazi zion. Aspektu hoiak horrela laburbildu daitezke: kontratuaren epea handitzea, 2023ko azaroaren 1 arte, Itziar I eta IIko zerbitzuguneei ustiapena MUTILVA COMBUSTION; SL. Enpresarekin azpikontratatzeko eta kanon ekonomikoaren aldaketa.

Aipaturiko proposamena, 2014ko irailaren 30eko BIDEGIko Administrazio Kontseiluak onartu zuen eta kontratua 2014ko abenduaren 16an formalizatu zen.

Sukaldaritzaguneei dagokionean, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera eta sozietatearen banantze prozesu baten ondorioz, AUTOGRILL IBERIA; SLU, erakundea, AUTOGRILL ESPAÑAk kontratuan zuen egoerara subrogatzea pasa zen.

2013ko abuztuaren 6an, Autogrillekin, kontratuaren aldaketa izenpetzen da, bertan baldintza ekonomikoak aldatzeaz gain, kontratuaren amaiera data ere zehazten da. Berau, 2014ko abenduaren 31ra aurreratzen da. Ondorioz Bidegiren erantzukizuna izango da, ostalaritza, sukaldaritza eta denden aktibitatea

Por su parte, CEPSA, haciendo uso de la facultad, otorgada en el contrato, de subcontratar con terceros la explotación de los restaurantes, cafeterías y tiendas que se encuentran en los edificios destinados a dichos negocios en las áreas de servicio, suscribió a tal efecto un contrato con la mercantil AUTOGRILL ESPAÑA SAU el 28 de enero de 2004.

Previa solicitud de CEPSA, el Consejo de Administración de Bidegi en fecha de 28 de julio de 2010, autorizó la cesión contractual de CEPSA a AUTOGRILL única y exclusivamente en lo referido a la actividad de hostelería, restauración y tiendas anexas a las áreas de servicio.

Asimismo, en el ejercicio 2014, CEPSA trasladó a BIDEGI nuevamente una propuesta para modificar determinados aspectos del actual marco contractual, los cuales pueden resumirse como sigue: ampliar el plazo del contrato por cinco años hasta el 1 de noviembre de 2023, subcontratar la explotación de las estaciones de servicio de Itziar I y II a la mercantil MUTILVA COMBUSTIÓN, S.L y la modificación del canon económico.

Dicha propuesta fue aceptada por el Consejo de Administración de BIDEGI en fecha 30 de septiembre de 2014, y se formalizó en fecha de 16 de diciembre de 2014.

Respecto a las áreas de restauración, con efectos desde el 1 enero de 2011 y como consecuencia de un proceso de segregación societaria, la entidad AUTOGRILL IBERIA, S.L.U. pasó a subrogarse sin solución de continuidad y a todos los efectos en la posición contractual de la anterior AUTOGRILL ESPAÑA.

En fecha 6 de agosto de 2013, se firmó un nuevo acuerdo con AUTOGRILL, por el que además de modificar las condiciones económicas del contrato habido entre las partes, se acordó anticipar la fecha de extinción del contrato a 31 de diciembre de 2014, por lo que BIDEGI debía adjudicar un nuevo contrato que



arautuko dituen baldintza orri berriak idaztea eta argitaratzea.

Horretarako, 2014ko ekainaren 17ko Administrazio Kontseiluaren akordioaren bitartez, Gipuzkoako AP-8 eta GI-20ko bidezatian dauden Oiartzun, Aritzeta eta Oiartzungo zerbitzugunetako jatetxe eta kafetegien kudeaketa zerbitzurako kontratu baten lizitazioa onartu zen.

Hala ere, lizitazio iragarkian ezarritako epea pasata ez zen inongo eskaintzarik jaso.

Horrela, hainbat lizitazio antzuen ondoren, BIDEGIko Administrazio Kontseiluak ondoko kontratuak esleitu zituen:

2015eko urtarrilaren 27an "Gipuzkoako AP-8ko bidezatian dauden Oiartzun eta Itziar I eta IIko sukaldaritza eta kafetegi guneen kudeaketa AUTOGRILL IBERIA; SLU. Enpresari esleitu zitzaion, beraz 2015eko urtarrilaren 30ean formalizatu zen.

2015eko maiatzaren 27an, Gipuzkoako GI-20 bidezatian dagoen Aritzeta sukaldaritza eta kafetegi zerbitzugunea ustiatzeko zerbitzuaren kontratua ONGI IZAN; SL enpresari esleitu zitzaion. Esleipendunak, ez duenez legeak dion epean eskaturiko dokumentazioa aurkeztu (SPKLTBKO 151.2 atala), ulertzen da bere eskaintza baztertu egin duela eta lizitatuak bakarrez, kontratua berriz ere enkantera ateratu behar duela, hau Bidegiko Administrazio Kontseiluan proposatu da.

### **2015EKO JARDUKETA NAGUSIAK**

BIDEGIk 2015. urtean izan dituen edo izatea aurreikusten den jarduketa nagusiak, aurrez orokorrean apatu direnak, hauek dira:

A) Inbertsioak edo Eraikuntza

regulase la actividad de hostelería, restauración y tiendas anexas a partir de la señalada fecha.

Para ello, mediante acuerdo del Consejo de Administración de fecha 17 de junio de 2014, se aprobó la licitación del contrato de «Servicio para la Explotación de las áreas de restauración y cafeterías de las áreas de servicio de Oiartzun, Itziar y Aritzeta en el tramo Guipuzcoano de la AP-8 y GI-20».

Sin embargo, no se recibió ninguna oferta una vez transcurrido el plazo establecido en el anuncio de licitación.

Así, tras varias licitaciones infructuosas, el Consejo de Administración de BIDEGI adjudicó los siguientes contratos:

En fecha de 27 de enero de 2015, el contrato de «Gestión de las zonas de restauración y cafeterías de las áreas de servicio de Oiartzun e Itziar I y II en tramo Guipuzcoano de la Autopista AP-8» a la mercantil AUTOGRILL IBERIA, S.L.U., el cual se formalizó el 30 de enero de 2015, y

En fecha 27 de mayo de 2015 el contrato de «Servicios de explotación del área de restauración y cafetería de Aritzeta en el tramo guipuzcoano de la GI-20» a la mercantil ONGI IZAN, S.L. Dado que el adjudicatario no ha presentado la documentación requerida en el plazo estipulado por ley (art.151.2 del TRLCSP), se entiende que éste ha retirado su oferta y dado que se trataba del único licitador, deberá volver a licitar el contrato lo que se propondrá en el Consejo de Administración de Bidegi.

### **PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE EL 2015**

Las principales actuaciones de BIDEGI durante el año 2015, realizadas o que se prevén realizar, dentro del ámbito de actuación comentado en el punto precedente son:

A) Inversiones o Construcción:





Eraikuntza atalean, 2015eko ekitaldian, Bidegiko Ekonomia eta Finantza Planean agertzen diren inbertsio guztiak egin dira, GI632ko Deskargako ordainlekua izan ezik. Azken honen eraikuntza, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion bidezatiaren lanen egikaritzaren martxak baldintzatzen du, hoiek amaituak izan arte ez bait da ordainlekuaren obrekin hasiko, hau 2018an izatea aurreikusi da.

2015ean zehar Bidegiri dagokion GI632ko bidezatia martxan jarri da, aurreikusita zegoen bezala.

2015. ekitaldian 12.000 mila euroko inbertsioak egitea aurreikusten da.

#### B) Errepideen ustiapena:

2015eko ekitaldian zehar Bidegik kudeatzen dituen errepideetako trafikoa handitu egin da. 2015eko abuztuan, ibilgailu arinak %3,5 igo dira, ibilgailu astunak 1 %5,11 eta ibilgailu astunak 2 %8,55. Ekitaldiaren itxieran, trafikoak, 2014arekin alderatuz %4 igotzea aurreikusten da.

2015ean zehar iruzurraren aurka aurrera eramandako jarduerak, kanonagatiko diru-sarrereren berreskurapena suposatu du, trafiko igoeren zenbatekoaren hainekoa.

Emaitza bezala, 2015 ekitaldiko itxierak, ekitaldi honetarako egin den aurrekontuan agertzen diren diru-sarrekiko %6ko igoera zenbakiak jaurtiko ditu.

Ustiapen gastuen atalean, Eskoriatzako luiziaren desbideraketa aipatu behar da. Aseguruak ezbeharrak onartu du eta estaldura xedean sartu du. Egun ez dakigu, kalte-ordainaren zenbatekoak, ezbeharrari lotutako gastu osoa estaliko duen edo ez.

Beste gastuei dagokionean, aurrekontuan jarritako gastu mugarekin ixtea aurreikusten

En el capítulo de Construcción, en el ejercicio 2015 se han culminado las inversiones contempladas en el Plan Económico Financiero de Bidegi a excepción de la Estación de Cobro de Canon en Descarga (GI632) cuya construcción comenzará en función del avance de la obra del tramo correspondiente a la Diputación Foral de Gipuzkoa en esta vía (tramo Antzuola Bergara), lo que en previsión se ha contemplado en 2018.

Durante el ejercicio 2015 se ha puesto en funcionamiento dentro del plazo previsto el tramo correspondiente a Bidegi de la GI632.

El importe de las inversiones que se prevén ejecutar en el ejercicio 2015 es de 12.000 Miles de Euros.

#### B) Explotación de las carreteras:

Durante el ejercicio 2015 se ha experimentado un crecimiento del tráfico en las carreteras que gestiona Bidegi que a fecha Agosto de 2015 suponen un incremento del 3,5% para vehículos ligeros, el 5,11% para vehículos pesados 1 y el 8,55% para vehículos pesados 2. Se estima que el crecimiento de tráfico a cierre del ejercicio en su conjunto supere el 4% respecto a 2014.

Igualmente las actuaciones llevadas a cabo antifraude en 2015 apuntan a una recuperación de los ingresos por canon que actúan en la misma dirección que el incremento de tráfico.

Como resultado, se espera que el cierre de ejercicio de 2015 arroje unas cifras de ingresos por encima del 6% respecto al presupuesto elaborado para este ejercicio.

En el área de gastos de explotación cabe mencionarse la desviación por el desprendimiento de Eskoriatza. Aunque el seguro ha admitido el siniestro, incluyéndolo dentro del objeto de cobertura, a la fecha desconocemos si el importe de la indemnización cubrirá en su integridad el gasto asociado.

Respecto al resto de gastos se prevé se cierre el ejercicio con el techo del gasto



da. Ezohiko kontserbazioaren epigrafean beste zenbatekorenbat gehitu ahal izango da, aurreko urteetan izan diren zenbateko defizitarioak berreskuratu asmoz.

C) Zerbitzuguneen ustiapena:

2015eko ekitaldian zehar zerbitzuguneei dagokien diru-sarrerak aurrekontuan adierazitakoa baino txikiagoa izango da. Honen arrazoia, 2015eko urtarilean Autogrillekin sinaturiko kontratuan agertzen den ordainketaren 2 urteko karentzia da. Fakturazioaren gainerako zenbatekoak aurreikusitakoekin bat datoz.

## **2016RAKO POLITIKA OROKORRAK**

### **INBERTSIO POLITIKA**

2011ko Ekonomia eta Finantza ereduaren definituriko Bidegiko Inbertsio Aurrekontuko Deskargako ordainlekuko eraikuntza dago egiteke, aurreikusten den inbertsioaren gehienezko zenbatekoa 5000 mila euro dira.

Hala eta guztiz ere, inbertsioaren hasiera, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion GI632ko Antzuola-Bergara bidezatiaren amaierari lotuta dago, 2017aren bukaeraldera amaitzea aurreikusten da.

### **FINANTZA POLITIKA**

2015ean izandako diru-sarreraren gehikuntza dela eta (trafikoaren hazkundeagatik eta iruzurraren aurkako neurriei esker), sozietatea finantziatzeko kontratuetan ezartzen diren finantza-konpromisoeri aurre egiteko helburuarekin sozietateraren eredu ekonomikoa gaurkotzen da.

establecido en presupuesto pudiéndose incorporar algún importe adicional en el epígrafe de conservación extraordinaria de recuperación de las cifras deficitarias de ejercicios anteriores.

C) Explotación de las Areas de Servicio:

Durante el ejercicio 2015 el importe de ingresos correspondiente a las áreas de servicio será ligeramente inferior al establecido en presupuesto, básicamente por los dos años de carencia en el pago del canon de Autogrill según contrato de Enero de 2015, estando el resto de la facturación en línea con los importes previstos.

## **POLITICAS GENERALES PARA EL 2016**

### **POLITICA DE INVERSIONES**

Respecto al Presupuesto de Inversiones de Bidegi definido en el Modelo Económico Financiero de 2011 sólo queda pendiente la construcción de la estación de cobro de canon en Deskarga por un importe previsto máximo de 5.000 miles de euros.

No obstante el inicio de la inversión quedará sujeta a la terminación del tramo Antzuola Bergara de la GI632 correspondiente a la Diputación Foral de Gipuzkoa, el cuál no se prevé se termine hasta finales de 2017.

### **POLITICA FINANCIERA**

Dado el incremento de ingresos experimentado en 2015, fruto del crecimiento de los tráficoes, y de las medidas antifraude, y con el objetivo de poder hacer frente a los compromisos financieros establecidos en los contratos de financiación de la sociedad, se procede a actualizar el modelo económico de la sociedad.



2016-2019rako autobideen ustiapenagatiko diru-sarreraren lerroak, ordainsariaren %3,5eko igoera aurreikusten du. Zerbitzuguneen kasuan, dagokien kontratuetan adierazten den moduan KPIaren aldaketak aplikatzearen ondorioz, 2016-2017rako %1 eta 2018-2019 ekitaldietarako %2 aurreikusten du.

Aurrekontu hau egiten ari garen datan, finantza entitateekin, Bidegiko eredu ekonomiko-finantzarioa eguneratzen ari gara.

Finantziazio kontratueta berorekatzeko prozedura agiritan ezarritako neurriei erantzunez, hurrengo hilabeteetan, GFA eta Bidegiko helburuetara hobekien egokitzen den eredu ekonomiko-finantzarioa adostuko da.

2016ko aurrekontuan 10 Mio€ kapital-handikuntza gehitzen da, Bidegi SA foru sozietate publikoaren jarduketa alor berriak jasotzeko xedearekin.

## **LANGILERIA**

2015eko ekitaldiaren itxieran, Bidegik, 19 langile izatea aurreikusten du (17 langile + aholkulari 1 + denboraldi-kanpaina batera atxikitako pertsona 1). Kategoriaren arabera sailkatuta ondoko taulan ikus daitezke:

La línea de ingresos por explotación de autopistas contempla un incremento del canon del 3,5% para los ejercicios 2016-2019 y en el caso de las áreas de servicio la aplicación de las variaciones de IPC según se determina en los contratos correspondientes, presuponiendo unos incrementos de IPC del 1% en los ejercicios 2016 y 2017 y del 2% en 2018-2019.

A la fecha de elaboración de este presupuesto, se está abordando con la entidades financieras, la actualización del modelo económico financiero de Bidegi.

Atendiendo a las medidas establecidas en las cláusulas del procedimiento de reequilibrio de los contratos de financiación, en los próximos meses se conformará el modelo económico financiero, que mejor se adapte a los objetivos de la DFG y de Bidegi.

Se incorpora en el presupuesto de 2016 una ampliación de capital por importe de 10Mio.€ con objeto de integrar nuevas áreas de actuación en la sociedad pública foral Bidegi, S.A.

## **PLANTILLA**

A cierre del ejercicio 2015 Bidegi prevé una plantilla de 19 trabajadores (17 trabajadores +1 asesor + 1 persona adscrita a una campaña temporal), que distribuidos por categorías se pueden observar en la tabla adjunta.

<b>Lanpostuak Puestos</b>	<b>Kategoriak Categorías</b>
1	Koordinatzaile Nagusia / Coordinadora General
4	Zerbitzu Koordinatzaileak / Coordinadores de Servicio
1	Aholkulari Komunikazioa/ Asesor Comunicación
2	Goi mailako Ingeniariak/ Técnicos Superiores
5	Teknikariak/Técnicos
1	Koordinatzailetzako idazkaria/ Secretaria de dirección
5	Administrariak/Administrativos



2016. URTERAKO ordainketen kalkuluari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundian sorburua duten bidearen arabera burutu dira. Bidegiko Administrazio Kontseiluak onarturiko ordainketa politikatik abiatuz eta ondoren adierazten dena:

En cuanto a la estimación de las retribuciones para EL AÑO 2016 se han realizado en función de las directrices emanadas de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Partiendo de la Política retributiva aprobada por el Consejo de Administración de Bidegi y que se detalla a continuación:

Ordainketa politika /Política Retributiva

2015 Talde funtzioanalak / Grupos Funcionales 2015

	Oinarrizko soldata Salario base	Urteko Soldata Gordina Salario Bruto anual (2016)
KOORDINATZAILE NAGUSIA COORDINACION GENERAL	4.876,13	68.265,90
A TALDEA GRUPO A	4.499,69	62.995,68
B TALDEA GRUPO B	3.683,43	51.568,01
C TALDEA GRUPO C	2.454,13	34.357,80
D TALDEA GRUPO D	2.149,59	30.094,30
E TALDEA GRUPO E	1.905,29	26.674,10